## Arrigorriagako Udala

IRAGARKIA

Arrigorriagako Udalbatzak, 2011ko urtarrilaren 28an egindako ezohiko bileran, Arrigorriagako Udal Euskaltegia Erakunde Autoniadunaren Estatutuak hasieran onartzea erabaki zuen.

Espedientea jendaurrean egon da 30 eguneko epean, izan ere, iragarkia 2011ko otsailaren 18an (ostirala) argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 34. zenbakian.

Kontuan hartuta epe horretan ez dela alegazio, erreklamazio edo iradokizunik egin, hasieran onartutako iragarkia behin betiko bihurtu da berez, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Era berean, aipatutako lege-testuaren 70.2 artikuluarekin bat etorriz, testu osoa argitaratuko da. Izan ere, bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egunera sartuko da indarrean.

### ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN ESTATUTUAK

ZIOEN AZALPENA

Hogeita lau urte igaro dira ia Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren Fundazio Publikoa sortu zenetik, fundazioaren estatutuak 1987ko otsailaren 19an egindako Osoko Bilkuran onetsi baitziren, eta urte bereko otsailaren 24an eman baitzituzten argitara Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Horiek horrela, bidezkoa da estatutuen edukia berriz ikustea, gaur egungo errealitatera egokitzeko, harrez geroztik, ezarri behar den legeria nabarmen aldatu baita.

Izan ere, hainbat legek aldaketak sartu dituzte, hala nola, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak eta Tokiko Gobernua modernizatzeko 57/2003 Legeak aldarazitakoak –gehienbat tokiko esparruan erakunde autonomiadunei aipamena egiten dien 85 bis artikulu berriaren bidez–.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak berak ere aldaketak egiten ditu, kide anitzeko organoen esparruan. Era berean, administrazio publikoen kontratuei buruzko gaiak ondoz ondo eraberritu dira, eta sektore publikoari buruzko 30/2007 indarreko Legea izan da azken aldaketa.

Hargatik, estatutu hauen bidez, berriz kokatu nahi dugu Arrigorriagako Udal Euskaltegiak duen jarduteko eremua, eta hartu beharreko erronka berrien arabera egokitu eta eguneratu nahi dugu, betiere, euskararen irakaskuntzan lan egiten jarraituz, eta HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearekin lankidetzan arituta eta koordinatuta.

Horri jarraiki, estatutu hauek indarrean daudenak aldatuko dituzte. Hala ere, aldaketa hain da zabala eta hainbeste artikulutan du eragina, non estatutu berriak aurkeztuko baitira Osoko Bilkuran, oro har segurtasun juridiko handiagoa izateko, eta, era berean, hobetu uler daitezen.

I. TITULUA

### IZAERA ETA FUNTZIOAK

**1. artikulua.—*Eraketa eta izaera juridikoa***

«Arrigorriagako Udal Euskaltegia» Arrigorriagako Udalak sortutako tokiko erakunde autonomiadun bat da. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 25.2 m) eta 85. artikuluetan eta ondorengoetan, eta lege horrekin bat datozen arauek emandako ahalmenak erabiliz sortu zuen. Erakundea HABEren erregistroan izena emanda dago; eta haren helburuak antolakuntza eta funtzionamendua estatutu hauetan eta ezar daitezkeen gainerako xedapenetan araututa daude.

## Ayuntamiento de Arrigorriaga

ANUNCIO

El Pleno del Ayuntamiento de Arrigorriaga, en sesión extraordinaria celebrada el día 28 de enero de 2011, acordó la aprobación inicial de los Estatutos del Organismo Autonomo Euskaltegi Municipal de Arrigorriaga.

El expediente ha estado expuesto al público durante el plazo de 30 días, mediante la publicación del anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 34 del viernes, 18 de febrero de 2011.

Considerando que en dicho plazo no se ha presentado ninguna alegación, reclamación o sugerencia, el acuerdo de aprobación inicial queda automáticamente elevado a definitivo, de conformidad con lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/85 de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local.

Asimismo, de conformidad al artículo 70.2 del citado texto legal se procede a la publicación del texto íntegro para su entrada en vigor a los 15 días de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

### ESTATUTOS DEL ORGANISMO AUTONOMO EUSKALTEGI MUNICIPAL DE ARRIGORRIAGA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Habiendo transcurrido casi 24 años desde la creación de la Fundación Pública Euskaltegi Municipal de Arrigorriaga cuyos Estatutos fueron aprobados en sesión plenaria celebrada el 19 de febrero de 1987, y publicados en el «Boletín Oficial de Bizkaia» de fecha 24 de febrero del mismo año, se estima oportuno revisar el contenido de dichos Estatutos a fin de adecuar su contenido a la realidad de nuestros días, ya que desde entonces hasta hoy la legislación de aplicación ha variado sustancialmente.

En efecto, las modificaciones introducidas por la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, principalmente modificada por la Ley 11/1999, de 21 de abril y por la Ley 57/2003 de modernización del Gobierno Local con la aparición de un nuevo artículo 85 bis con referencia a los Organismos Autónomos en el ámbito Local.

La propia regulación que la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de regulación del régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, por la Ley 4/1999, de 4 de enero, realiza en materia de órganos colegiados, o las sucesivas reformas en materia Contractual de las Administraciones Públicas, siendo el último exponente la actual Ley 30/2007 de contratos del Sector Público.

Por ello, los presentes Estatutos pretenden resituar el campo de actividad de Arrigorriagako Udal Euskaltegia así como actualizar y adecuar los mismos a los nuevos retos a asumir, todo ello sin dejar de trabajar en la enseñanza del euskara en colaboración y coordinación con el instituto de Alfabetización y Euskaldunización de adultos HABE.

En su virtud, los siguientes Estatutos son una modificación de los Estatutos vigentes. Sin embargo, es de tanta amplitud y afecta a tantos artículos, que se presentan a la aprobación del Pleno unos nuevos Estatutos para seguridad jurídica en general y mayor comprensión de los mismos.

TÍTULO I

### NATURALEZA Y FUNCIONES

**Artículo 1.—*Constitución y naturaleza jurídica***

«Arrigorriagako Udal Euskaltegia» es un Organismo Autónomo Local creado por el Ayuntamiento de Arrigorriaga, de acuerdo con las facultades que le otorgan los artículos 25.2 m) y 85 y siguientes de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen y demás normas concordantes. Dicho Organismo está inscrito en el registro de HABE y sus fines, organización y funcionamiento se regulan en los presentes Estatutos y demás disposiciones que le sean de aplicación.

cve: BAO-BOB-2011a068

Erakundearen izaera publikoa, soziala eta hezkuntza-arlokoa da. Udalak zerbitzu hori egin arren, horrek ez du esan nahi udalerrian monopolioa duenik.

Zuzeneko kudeaketako zerbitzu pertsonalizatua denez, berezko nortasun juridikoa du estatutu hauetan finkatzen diren helburuak betetzeko, eta, orobat, erabateko ahalmen juridikoa eta jarduteko ahalmena du, bai eta finantzazko autonomia eta autonomia funtzionala ere.

**2. artikulua.—*Helbidea eta iraupena***

Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomiadunaren egoitza Arrigorriagako udalerrian dago, hain zuzen ere, Urgoiti pasealekuan, 55. zenbakiko 2. solairuan. Tokiko erakunde autonomiadunaren iraupena mugagabea izango da.

**3. artikulua.—*Tokiko erakunde autonomiadunaren helburuak***

Hona hemen Arrigorriagako Udal Euskaltegiak dituen helburuak: Arrigorriagako udal-mugartean euskararen irakaskuntza, zabalkuntza eta normalizazioa sustatzea, eta, orobat, udal-administrazioaren hizkuntza-normalizaziorako planak betearaztea eta aholkua ematea.

Helburu horiek lortzeko, erakundeak jarduera hauek egingo ditu:

a) Euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak.
b) Euskara irakasteko, hobetzeko eta ezagutzera emateko elkarteek antolatzen dituzten jarduerak, eta kulturako eta aisialdiko jarduerak bultzatuko ditu. Hori guztia Udaleko sailekin koordinatuta egingo du.
c) Gaikuntza teknikoa lortzeko edo ezagutzak zabaltzeko bestelako ikastaroak edo programak antolatuko ditu, alfabetatzeko eta euskalduntzeko ikastaroak gainditzen dituztenentzat.
d) Gizarte-ingurunean sortzen diren eta erakunde autonomiadunaren helburuarekin zerikusia duten jarduerak bideratu eta sustatuko ditu.

Tokiko erakunde autonomiadunak Arrigorriagako udalerriko helduen euskalduntzeari lotutako zerbitzuak eta baliabideak kudeatu, antolatu eta zaindu nahi ditu, eta, era berean, euskararen alfabetizazioa sustatu nahi du, dagozkion eskumenen barruan.

Horrez gain, Arrigorriagako Udal Euskaltegia lankidetzan arituko da Arrigorriagako Udalarekin, euskara sustatzeko eta normalizatzeko planak garatzen, hala udalerrian nola udal-administrazioan; eta, horretarako, behar diren koordinazioko protokoloak eta tresnak finkatuko dira.

**4. artikulua.—*Araubide juridikoa***

Tokiko erakunde autonomiaduna arautzeko, estatutu hauek ezarritakoa beteko da, eta, horrez gain, aintzat hartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 85. eta hurrengo artikuluetan eta lege horrekin bat datozen legeek finkatutakoa.

**5. artikulua.—*Ahalmenak***

Ildo horretan, eta Arrigorriagako Udalak dituen babes-ahalmenei kalterik egin gabe, erakundeak ahalmen hauek izango ditu:

a) Egoki iruditzen zaizkion kontratuak, itunak edo baldintzak adostuko ditu, mota guztietakoak, betiere, interes publikoaren aurkakoak ez badira, edo estatutu hauetan ezarritako helburuen, eta antolamendu juridikoaren edo administrazio onerako oinarrien aurkakoak ez badira.
b) Diru-laguntzak, dohaintzak eta mota guztietako laguntzak eskatu eta onetsiko ditu, hala pertsona fisikoenak nola juridikoenak –publikoak zein pribatuak izan–.
c) Bere ondarea kudeatuko du, eta, horretarako, era guztietako ondasunak eskuratu eta edukiko ditu, eta, orobat, besterenduko ditu.
d) Betebeharrak hartuko ditu.

Su naturaleza es de interés público, social y de carácter educativo y el ejercicio del mencionado servicio por el Ayuntamiento no implica monopolio en la localidad.

Como servicio personalizado de gestión directa, estará dotado de personalidad jurídica propia para el cumplimiento de las finalidades que se determinen en los presentes Estatutos, y también de plena capacidad jurídica y de obrar, así como de autonomía financiera y funcional.

**Artículo 2.—*Domicilio y duración***

El Organismo Autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia tiene su sede en el municipio de Arrigorriaga, sita en Urgoiti pasealekua, n.º 55, 2.º piso. El Organismo Autónomo Local tendrá una duración de carácter indefinido.

**Artículo 3.—*Fines del Organismo Autónomo Local***

Los fines de Arrigorriagako Udal Euskaltegia son la enseñanza del euskara, su difusión y normalización en el término municipal de Arrigorriaga, así como el asesoramiento y ejecución de los planes de normalización lingüística de la administración municipal.

Para la consecución de estos fines el Organismo llevará a cabo las siguientes actividades:

a) Las enseñanzas de euskaldunización y alfabetización.
b) Promoción de actividades culturales, recreativas y de asociaciones que tengan por objeto la enseñanza, perfeccionamiento y divulgación del euskara y sus caracteres. Todo ello en coordinación con los diferentes departamentos del Ayuntamiento.
c) Impartición de otros cursos o programas de capacitación técnica o de ampliación de conocimientos a los que superan las enseñanzas de alfabetización y euskaldunización.
d) Canalizará y promocionará las actividades que pudieran ir surgiendo en su entorno social y que tuvieran relación con el objeto del Organismo Autónomo.

Es objeto del Organismo Autónomo Local la gestión, administración y mantenimiento de los servicios y recursos afectos a la euskaldunización de personas adultas del municipio de Arrigorriaga, así como promover dicha alfabetización del euskara en su ámbito competencial.

Así mismo, Arrigorriagako Udal Euskaltegia podrá colaborar con el Ayuntamiento de Arrigorriaga en el desarrollo de planes de promoción y normalización del uso de euskara, tanto en el municipio como en la administración municipal, para lo cual se establecerán los mecanismos y protocolos de coordinación necesarios.

**Artículo 4.—*Régimen jurídico***

El Organismo Autónomo Local se regirá por los presentes Estatutos, por los artículos 85 y siguientes de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y por la demás legislación concordante.

**Artículo 5.—*Potestades***

Para ello, y sin perjuicio de las facultades de tutela que corresponden al Ayuntamiento de Arrigorriaga, corresponden al Organismo las siguientes potestades:

a) Concertar los contratos de todo tipo, pactos o condiciones que tenga por conveniente, siempre que no sean contrarios al interés público, a las finalidades previstas en los presentes Estatutos, al ordenamiento jurídico, o a los principios de buena administración.
b) Solicitar y aceptar subvenciones, donativos y cualquier clase de ayudas, tanto de personas físicas como jurídicas, públicas o privadas.
c) Administrar su patrimonio, adquiriendo y poseyendo toda clase de bienes y enajenarlos.
d) Contraer obligaciones.

cve: BAO-BOB-2011a068

e) Oinordetzak, legatuak eta dohaintzak onetsiko ditu, eta dirulaguntzak, sorospenak, laguntza publikoak eta partikularren laguntzak lortuko ditu.

f) Bere funtzionamendua arautuko du.

g) Irakasleak eta administrazioko langileak kontratatuko ditu.

h) Beharrezkoak diren lankidetzako hitzarmenak sinatuko ditu erakunde publikoekin eta pribatuekin, tokiko erakunde autonomiadunaren helburuak betetze aldera.

i) Era guztietako ekintzak egin eta errekurtsoak jarriko ditu epaitegien, auzitegien eta agintarien aurrean.

## II. TITULUA

## GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA

**6. artikulua.—*Gobernuko organoak***

Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomiadunaren administrazioa eta gobernua hauen ardura izango da:

a) Batzordeko burua.

b) Artezkaritza Batzordea.

c) Zuzendaritza.

d) Zuzendaritza akademikoa.

### I. KAPITULUA

### ARTEZKARITZA BATZORDEA.

**7. artikulua.—*Artezkaritza Batzordea***

Artezkaritza Batzordea tokiko erakunde autonomiadunaren organo gorena da, erakundearen gobernuaz eta kudeaketaz arduratuko da, eta honako hauek eratuko dute:

a) Batzordeburua, hau da, alkateburua edo berak eskuordetutako zinegotzia.

b) Batzordeko kideak:

— Zinegotzi bat Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko bakoitzeko, batzordeburuaren alderdi politikoa alde batera utzita, batzordeburua egongo baita horren ordezkaritzan.

— Ordezkari bat euskaltegiak lankidetza-hitzarmena sinatzen duen udal bakoitzeko; eskubidea izango du hitz egiteko, baina ez bozkatzeko.

— Erakunde autonomiadunaren zuzendaria; eskubidea izango du hitz egiteko, baina ez bozkatzeko.

— Irakaskuntzako zuzendari akademikoa; eskubidea izango du hitz egiteko, baina ez bozkatzeko.

— Ikasleen ordezkari bat; eskubidea izango du hitz egiteko, baina ez bozkatzeko.

— HABEren ordezkari bat, ondorio horretarako egindako izendapenari jarraiki; eskubidea izango du hitz egiteko, baina ez bozkatzeko.

Era berean, ordezko bana izendatuko da batzordekide bakoitzeko. Hala, ordezkoak haren lekuan jardungo du, batzordekidea ez dagoenean, hau da, gaixorik dagoenean edo dagozkion eskumenak erabiltzea galarazten dion bestelako ezintasunen bat duenean.

Udalaren Osoko Bilkurak berrespena emango dio Artezkaritza Batzorderako hautatzen diren eta zinegotziak diren pertsonen izendapenari.

Arrigorriagako Udaleko politikariak diren Artezkaritza Batzordeko kideen botoa –erakundearen batzordeburua barne hartuta– haien alderdiak Udalaren Osoko Bilkuran dituen kideen kopuruaren parekoa izango da.

c) Idazkaria: udal-idazkaria izango da; eta eskubidea izango du hitz egiteko, baina ez bozkatzeko.

Nolanahi ere, udal-idazkariak Artezkaritza Batzordeko idazkariaren kargua eskuordetu ahal izango du, eta Udaleko edo erakunde autonomiaduneko administrazioko langileren bat izendatu ahal izango du idazkari delegatu gisa jardun dezan.

e) Aceptar herencias, legados y donaciones, obtener subvenciones, auxilios y ayudas públicas y de los particulares.

f) Reglamentar su propio funcionamiento.

g) Contratar al personal docente y administrativo.

h) Suscribir convenios de colaboración con entidades públicas como privadas necesarias para la consecución de las finalidades del Organismo Autónomo Local.

i) Ejercitar toda clase de acciones y recursos, ante juzgados, tribunales y autoridades.

## TÍTULO II

## DEL GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN

**Artículo 6.—*Órganos de gobierno***

La administración y gobierno del Organismo Autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia estará a cargo de:

a) La Presidencia.

b) El Consejo Rector.

c) La Dirección.

d) La Dirección académica.

### CAPÍTULO I

### DEL CONSEJO RECTOR

**Artículo 7.—*El Consejo Rector***

El Consejo Rector es el órgano supremo del Organismo Autónomo Local, asume el gobierno y la gestión del mismo y estará compuesto por:

a) Presidenta/e que será la persona titular de la Alcaldía o concejal/a en quien delegue.

b) Vocales:

— Un/a concejal/a de cada grupo político representado en el Ayuntamiento, excepto el del Grupo político que ostente la Presidencia el cual ya representa a su Grupo.

— Una persona representante por cada Ayuntamiento con el que el Euskaltegi firme convenio de colaboración, con voz y voto.

— El/la director/a del organismo autónomo, con voz y sin voto.

— La persona que ostente el cargo de director/a académico/a, con voz y sin voto.

— Una persona representante del alumnado, con voz y sin voto.

— Una persona representante de HABE en virtud de nombramiento conferido al efecto, con voz y sin voto.

Así mismo, podrá ser nombrada una persona suplente para cada vocal que sustituirá a quien sea titular en caso de ausencia, enfermedad o impedimento que le imposibilite para el ejercicio de sus atribuciones.

El Pleno del Ayuntamiento ratificará el nombramiento de las personas elegidas para el Consejo Rector que tengan la condición de concejal/a.

El voto de los/as componentes del Consejo Rector que tengan la condición de miembro político del Ayuntamiento de Arrigorriaga incluyéndose a la Presidencia del organismo, será igual al número de miembros de su grupo en el Pleno del Ayuntamiento.

c) Secretaria/o: recaerá en el/la secretario/a del Ayuntamiento, el cual ostentará el cargo con voz pero sin voto.

En todo caso la Secretaría del Consejo Rector podrá ser delegada por el Secretario/a Municipal en personal administrativo del Ayuntamiento o del propio Organismo Autónomo, quien actuará como Secretario/a delegado/a.

cve: BAO-BOB-2011a068

**8. artikulua.—*Karguan egotea***

Artezkaritza Batzordeko kideek dagokien aginpidea erabiliko dute, hautatu zituztenean zeukaten lanari edo ordezkaritzari eusten dioten bitartean.

Zinegotziak diren ordezkariek erakundearen Artezkaritza Batzordeko kide gisa duten izaera galduko dute zinegotzi-kargua uzten dutenean.

Artezkaritza Batzordeko gainerako kideek lau urtez beteko dute kargu hori, zuzendari akademikoak izan ezik, horrek bi urtez beteko baitu. Bestalde, kide gisa duten izaera galduko dute, eman zaien ordezkaritza kentzen zaienean, eta, nolanahi ere, hautatu zituztenean lortu zuten izaera galtzen dutenean.

**9. artikulua.—*Artezkaritza Batzordearen zereginak***

Hona hemen Artezkaritza Batzordeak izango dituen zereginak:

a) Tokiko erakunde autonomiadunaren gobernuko organo guztien kontrolaz, zuzendaritzaz eta fiskalizazioaz arduratuko da.

b) Barne Arautegia eta zerbitzuko antolakuntzako arauak onetsiko ditu.

c) Erakundearen zereginekin zerikusia duten planak, urteko programak eta jarduerak onetsiko ditu.

d) Langileen eta lanpostuen zerrenden proposamena, eta langileen ordainsari osagarri finkoen eta aldizkakoen zenbatekoak finkatu eta onetsiko ditu, eta, gero, dagokion udalarloari bidaliko dizkio, Osoko Bilkuran onets dezan.

e) Mota guztietako kontratazioak egingo ditu, haien zenbatekoa aurrekontuko ohiko baliabideen %10 gainditzen badu, eta, nolanahi ere, sei miloi eurotik gora jotzen badu. Bestalde, urte askotako kontratuak egin eta emakidak banatuko ditu, haien iraupena lau urtetik gorakoa bada; eta iraupen gutxiagokoak eta urte askotakoak direnak ere bai, baldin eta urte guztietan metatutako zenbatekoak adierazitako zenbatekoa gainditzen badu –lehenengo ekitaldiko aurrekontuaren baliabide arruntei dagokiena–, eta, nolanahi ere, adierazitako kopurua gainditzen badu.

f) Ondasunak eta eskubideak eskuratuko ditu, haien balioa aurrekontuko baliabide arrunten %10etik gorakoa bada, eta, nolanahi ere, hiru milioi eurotik gora jotzen badu; eta, era berean, ondarea besterenduko du honako kasu hauetan:

— Balio historikoko edo artistikoko ondasun higiezinak edo ondasun higigarriak badira, eta aurrekontuan barne hartuta ez badaude.

— Aurrekontuan sartuta egon arren, ondasunak erosteko adierazita dauden ehunekoak eta zenbatekoak gainditzen badituzte.

g) Dena delako zerbitzu publikoari atxikita dauden edo atxiki ahal zaizkion udal-ondasunak erabiliko ditu, eta ondasun horiek hobetzeko eta zaintzeko egin behar diren obrak egingo ditu, udal-baimena izanda.

h) Dohain bidez eskuratutako gauzak onetsiko ditu.

i) Norberaren baliabideak zehaztuko ditu, eta onetsi eta aldatuko ditu, Udaleko Osasun Arloari bidaltzeko, gero Osoko Bilkuran onespena emateko.

j) Tokiko erakunde autonomiadunaren inbentarioa Udalari bidaliko dio urtero.

k) Aurrekontuaren proposamena eta haren aldaketak onetsiko ditu, dagokion udal-arloari bidaltzeko, gero Udalaren Osoko Bilkurak onets dezan.

l) Tasa eta prezio publikoen proposamena onetsiko du urtero, Udaleko Ogasun Arloari bidaltzeko, gero Udalaren Osoko Bilkurak onets dezan.

m) Estatutu hauek osorik edo zati batean aldatzeko proposamena egingo dio Arrigorriagako Udalari.

n) Udalaren Osoko Bilkurari dagozkion antzeko beste eskumen edo zeregin batzuk beteko ditu.

**Artículo 8.—*Permanencia en el cargo***

Quienes sean miembros del Consejo Rector ejercerán su mandato en tanto mantengan el empleo o representación en función de la cual fueron elegidos/as como tales miembros.

Las personas representantes que tengan la condición de concejales/as perderán su carácter de componentes del Consejo Rector del Organismo al perder esta condición.

El resto de vocales del Consejo Rector, serán por cuatro años, a excepción del cargo de la Dirección Académica que será por dos años; y perderán el carácter de componentes del mismo cuando les sea revocada la representación conferida o, en todo caso, al perder la condición en virtud de la cual fueron elegidos/as.

**Artículo 9.—*Funciones del Consejo Rector***

Serán funciones del Consejo Rector:

a) El control, dirección y la fiscalización de todos los órganos de gobierno del Organismo Autónomo Local.

b) Aprobar la Normas de Régimen Interior y los Reglamentos de funcionamiento del servicio.

c) Aprobar los planes, programas anuales y actuaciones relacionadas con las funciones del Organismo.

d) La aprobación en su seno y posterior remisión al área municipal correspondiente de la propuesta de plantilla de personal y propuesta de relación de puestos de trabajo y la fijación de la cuantía de las retribuciones complementarias fija y periódica del personal a los efectos de su aprobación plenaria.

e) Las contrataciones de toda clase cuando su importe supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del Presupuesto y en cualquier caso, los seis millones de euros, así como los contratos y concesiones plurianuales cuando su duración sea superior a cuatro años y los plurianuales de menor duración cuando el importe acumulado de todas sus anualidades supere el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio y en todo caso, cuando sea superior a la cuantía señalada.

f) La adquisición de bienes y derechos cuando su valor supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto y, en todo caso, cuando sea superior a tres millones de euros, así como las enajenaciones patrimoniales en los siguientes supuestos:

— Cuando se trate de bienes inmuebles o de bienes muebles que estén declarados de valor histórico o artístico y no estén previstas en el Presupuesto.

— Cuando estando previstas en el Presupuesto, superen los mismos porcentajes y cuantías indicados para las adquisiciones de bienes.

g) Utilizar los bienes municipales adscritos o que se puedan adscribir al servicio público de que se trata y disponer las obras necesarias para su mejora y conservación previa autorización municipal.

h) Aprobar las adquisiciones a título gratuito.

i) La determinación de los recursos propios y la aprobación y modificación a efectos de su remisión al Área Municipal de Hacienda para su aprobación plenaria.

j) Remisión al Ayuntamiento con carácter anual del inventario del Organismo Autónomo Local.

k) Aprobar la propuesta de Presupuesto para su remisión al área municipal correspondiente para su posterior aprobación por el Pleno del Ayuntamiento, así como de sus modificaciones.

l) Aprobar anualmente, a efectos de su remisión al Área Municipal de Hacienda, la propuesta de tasas y precios públicos, todo ello para su aprobación posterior por el pleno del Ayuntamiento.

m) Proponer al Ayuntamiento de Arrigorriaga la modificación total o parcial de los presentes Estatutos.

n) Cualesquiera otras funciones o competencias que por similitud, pudieran corresponder al Pleno municipal.

cve: BAO-BOB-2011a068

II. KAPITULUA

**BATZORDEKO BURUA**

**10. artikulua.—*Batzordeko burua***

Arrigorriagako Udaleko Alkatetzaren titularra izango da Artezkaritza Batzordeko buru, berez eta bere karguari loturik dagoen eskubideari jarraiki. Batzordeko buru gisa, bere karguari dagozkion zereginak bete beharko ditu tokiko erakunde autonomiadunean, edo, bestela, Udaleko zinegotzi baten esku utzi beharko ditu.

Alkateak batzordeburu izateko eskuordetzen duen pertsonak kargu hori beteko du alkatetzak duen indarraldian, betiere, zinegotzi karguari eusten badio, eta, nolanahi ere, bat-batean gertatutako arrazoiak direla-eta batzordeburuak eskuordetzari amaiera ematen ez badio.

**11. artikulua.—*Batzordeburuaren eginkizunak***

Batzordeko buruak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Tokiko erakunde autonomiadunaren gobernua eta zereginak zuzenduko ditu.

b) Tokiko erakunde autonomiadunaren ordezkaritzan arituko da.

c) Artezkaritza Batzordearen bileretarako dei egingo du, bileretako burua izango da, bilerak bertan behera utzi edota amaitzat joko ditu, eta hainbanaketak erabakiko ditu, kalitatezko botoa erabiliz.

d) Tokiko erakunde autonomiadunaren zerbitzuak zuzendu, ikuskatu eta bultzatuko ditu.

e) Kudeaketa ekonomikoa garatuko du aurrekontuarekin bat etorrita, gastuak xedatuko ditu bere eskumenak dituen mugen barruan, eta ordainketak agindu eta kontuak emango ditu, betiere, tokiko ogasunen araudiarekin eta udalarauekin bat etorrita.

f) Erakunde autonomiadunaren lan-eskaintza publikoa onetsiko du, Udalak onartutako aurrekontuarekin eta langileen zerrendarekin bat etorrita, langileak hautatzeko proben oinarriak eta erakunde autonomiaduneko lanpostuak betetzeko lehiaketen oinarriak onartuko ditu, eta finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatuko ditu.

g) Erakunde autonomiaduneko langile guztien buru nagusia izango da, eta langile horien izendapenak eta zehapenak erabakiko ditu, tokiko erakunde autonomiaduneko funtzionarioak zerbitzutik bereizteko eta langileak kaleratzeko erabakia barne hartuta. Azken bi kasu horietan, erabaki horien berri emango dio Artezkaritza Batzordeari, horrek egiten duen lehen bileran berrespena eman dezan.

h) Ekintza judizialak eta administraziokoak egingo ditu, eta tokiko erakunde autonomiaduna babestuko du bere eskumeneko gaietan, bai eta eskumenak beste organo baten esku utzi dituenean eta larrialdia denean ere, Artezkaritza Batzordearen eskumeneko gaietan; azken kasu horretan, horren berri emango dio Batzordeari, egiten duen lehenengo bileran berrespena eman diezaion.

i) Zehatzeko ahalmenaz baliatuko da, zerbitzuaren funtzionamendurako arautegietan ezarritakoari jarraiki.

j) Era guztietako kontratazioak egingo ditu, baldin eta haien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %10 gainditzen ez badu, eta, nolanahi ere, sei milioi euroko kopurua gainditzen ez badu. Barne hartuko dira urte askotako kontratazioak, haien iraupena lau urtetik gorakoa ez bada, eta, betiere, urte guztietan metatutako zenbatekoak lehen ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntei dagokien ehuneko hori eta, orobat, adierazitako zenbatekoa gainditzen ez badu.

k) Ondasunak eta eskubideak eskuratuko ditu, haien balioak baliabide arrunten %10 gainditzen ez badu edo hiru milioi eurotik gorakoa ez bada. Orobat, ondarea besterenduko du, ondoko kasu hauetan, adierazitako ehunekoa edo zenbatekoa gainditzen ez bada:

— Ondasun higiezinak, aurrekontuan ezarrita badago.

CAPÍTULO II

**DE LA PRESIDENCIA**

**Artículo 10.—*La Presidencia***

La persona titular de la Alcaldía del Ayuntamiento de Arrigorriaga ostentará la Presidencia del Consejo Rector por derecho propio e inherente a su cargo. El cual podrá como tal, realizar personalmente las funciones propias de su cargo en el Organismo Autónomo Local, o bien delegarlas en cualquier concejal del Ayuntamiento.

La persona delegada por la Alcaldía como Presidente/a salvo que éste/a haga terminar la delegación por causas sobrevenidas, durará en el cargo tanto como la Alcaldía misma, siempre que conserve su cualidad de concejal.

**Artículo 11.—*Funciones de la Presidencia***

Serán funciones de la persona titular de la Presidencia:

a) Dirigir el gobierno y funciones del Organismo Autónomo Local.

b) Representar el Organismo Autónomo Local.

c) Convocar, presidir, suspender y levantar las reuniones del Consejo Rector, así como dirigir sus deliberaciones y decidir los empates con voto de calidad.

d) Dirigir, inspeccionar e impulsar los servicios del Organismo Autónomo Local.

e) El desarrollo de la gestión económica de acuerdo con el Presupuesto, disponer gastos dentro de los límites de su competencia, ordenar pagos y rendir cuentas; todo ello de conformidad con la normativa reguladora de las Haciendas Locales y en la normativa municipal.

f) Aprobar la oferta de empleo público del organismo autónomo de acuerdo con el presupuesto y la plantilla de personal aprobados por el Ayuntamiento, aprobar las bases de las pruebas para la selección del personal y para los concursos de provisión de puestos de trabajo del organismo autónomo y distribuir las retribuciones complementarias que no sean fijas y periódicas.

g) Desempeñar la jefatura superior de todo el personal del organismo autónomo y acordar su nombramiento y sanciones, incluida la separación del servicio de los funcionarios del Organismo Autónomo Local y el despido del personal laboral, dando cuenta al Consejo Rector, en estos dos últimos casos, en la primera sesión que celebre para su ratificación.

h) El ejercicio de las acciones judiciales y administrativas y la defensa del Organismo Autónomo Local en las materias de su competencia, incluso cuando las hubiere delegado en otro órgano y en caso de urgencia, en materias de la competencia del Consejo Rector, en este supuesto dando cuenta al mismo en la primera sesión que celebre para su ratificación.

i) Ejercer la potestad sancionadora de acuerdo con lo previsto en los reglamentos de funcionamiento del servicio.

j) Las contrataciones de toda clase cuando su importe no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, los seis millones de euros incluidas las de carácter plurianual, cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.

k) La adquisición de bienes y derechos cuando su valor no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios ni los tres millones de euros, así como la enajenación del patrimonio que no supere el porcentaje ni la cuantía indicados en los siguientes supuestos:

— La de bienes inmuebles, siempre que esté prevista en el presupuesto.

cve: BAO-BOB-2011a068

— Ondasun higigarriak, balio historikokoak edo artistikokoak direnak eta aurrekontuan besterentzeko jasota ez daudenak kenduta.

l) Artezkaritza Batzordearen akordioak argitaratzeko aginduko du, eta bete eta betearaziko ditu.

m) Artezkaritza Batzordeak agintzen dizkion edo estatutuetan jasota dauden baina batzorde horrentzat gordeta ez dauden bestelako zereginak egingo ditu.

III. KAPITULUA

**KIDE ANITZEKO ORGANOEN FUNTZIONAMENDUKO ARAUAK**

**12. artikulua.—*Eraketa***

Arrigorriagako Udala eratu eta ondoko hogei egunen barruan egituratu beharko da Artezkaritza Batzordea.

**13. artikulua.—*Bilkuren araubidea***

Artezkaritza Batzordeak ohiko bilkurak egingo ditu, une korporatibo bakoitza eratzeko bilkuran finkatzen den aldizkakotasunarekin.

Batzordeko burua arduratuko da deialdiak sinatzeaz, eta horiek, gutxienez, berrogeita zortzi ordu lehenago bidali beharko dira. Zenbaketa horretan, ez dira aintzat hartuko deialdiaren eguna eta bilkura egiten den eguna. Bestalde, Batzordearen deialdiari lotuta dauden agiri guztiak Artezkaritza Batzordeko kideek eskuratzeko moduan egongo dira, deialdia egiten den egunetik zenbatzen hasita.

Ohiz kanpoko bilkurak egingo dira batzordeburuak deialdia egiten duenean, edo gutxienez Artezkaritza Batzordeko kideen laurden batek hala eskatzen duenean. Dena dela, inork ezin izango du eskatu urtean ohiz kanpoko hiru bilkura baino gehiago egiteko. Azken kasu horretan, bilkura ezin izango da atzeratu hamabost egun baliodun baino gehiago, eskaera egiten den egunetik zenbatzen hasita.

Batzordeburua arduratuko da ohiz kanpoko eta premiako bilkuretarako deiak bidaltzeaz, eta Artezkaritza Batzordeak haien premia berretsi beharko du.

Artezkaritza Batzordearen bilkurak eratzeko modua balioduna dela joko da, Batzordeko burua eta idazkaria agertzen badira, eta, horrez gain, honako hauek tartean badaude:

— Lehen deialdian, kide guztien erdia gutxienez.

— Handik ordu erdira egingo den bigarren deialdian, kide guztien herena; dena dela, kopuru hori inoiz ere ez da izango hiru kidetik beherakoa.

Artezkaritza Batzordearen bilkurak ez dira jendaurrekoak izango. Hori gorabehera, aholku bila bertaratu nahi diren eta batzordeburuaren baimena duten lagunei gonbidapena egingo zaie, eta, hala, parte hartu ahal izango dute.

**14. artikulua.—*Bilkuren prozedura***

Kide anitzeko organoek bilkura egiten duten guztietan, horri dagokion akta prestatu beharko da. Bertan, datu hauek jaso beharko dira: bilkura egin den tokia, eguna eta bilkura hasteko ordua, bertaratutako guztien izen-deiturak, eztabaidatutako gaiak eta hartutako erabakiak, eta bozketaren emaitza.

Artezkaritza Batzordeko buruak eta idazkariak sinatuko dituzte aktak, eta Artezkaritza Batzordeari aurkeztuko dizkiote, onespena eman diezaien.

Aztergaien zerrendatik kanpo dauden gaiak ohiko bilkuretan baizik ezin izango dira aztertu. Horretarako, lehenik, premiazkotzat jo beharko dira, Artezkaritza Batzordeko kideen gehiengo osoak emandako aldeko botoaren bidez.

Kide anitzeko organoen erabakiak, oro har, bilkuran dauden kideek emandako botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira; eta hori aldeko botoak aurkako botoak baino gehiago direnean gertatuko da. Berdinketa izanez gero, Batzordeko buruak emango du ebazteko botoa.

Artezkaritza Batzordeko idazkariak emango ditu hartutako erabakiei dagozkien ziurtagiriak.

— La de bienes muebles, salvo los declarados de valor histórico o artístico cuya enajenación no se encuentre prevista en el presupuesto.

l) Ordenar la publicación, ejecución y hacer cumplir los acuerdos del Consejo Rector.

m) Cualesquiera otras funciones, que le confiera el Consejo Rector o que estando prevista en los Estatutos, no este reservada a dicho Consejo.

CAPÍTULO III

**NORMAS DE FUNCIONAMIENTO DE LOS ÓRGANOS COLEGIADOS**

**Artículo 12.—*Constitución***

El Consejo Rector se deberá constituir dentro de los veinte días siguientes a la fecha de constitución del Ayuntamiento de Arrigorriaga.

**Artículo 13.—*Régimen de sesiones***

El Consejo Rector celebrará sesión ordinaria con la periodicidad que se establezca en su sesión constitutiva de cada momento corporativo.

Las convocatorias serán suscritas por la Presidencia y deberán cursarse al menos con cuarenta y ocho horas de antelación, exceptuándose del cómputo el día de la convocatoria y día de la celebración. Así mismo toda la documentación relacionada con la convocatoria del consejo estará a disposición de los miembros del consejo rector desde el mismo día de la convocatoria.

Las sesiones extraordinarias se celebrarán cuando la Presidencia las convoque o cuando lo solicite la cuarta parte al menos, del número de miembros del Consejo Rector, sin que nadie pueda solicitar más de tres anualmente. En este último caso, la celebración de la sesión no podrá demorarse más de quince días hábiles desde que fuera solicitada.

Las sesiones extraordinarias y urgentes serán cursadas por la Presidencia, debiendo ser ratificada dicha urgencia por el Consejo Rector.

Las sesiones del Consejo Rector se entenderán válidamente constituidas cuando asista el/la Presidente/a y de el/la Secretario/a del Consejo Rector, siendo necesario además que concurran.

— En primera convocatoria, la mitad al menos de sus miembros.

— En segunda convocatoria, que se celebrará media hora después, la tercera parte de sus miembros, en todo caso en número nunca inferior a tres.

Las sesiones del Consejo Rector no serán públicas, sin perjuicio de la participación de aquellas personas que con carácter consultivo y, previa autorización de la Presidencia sean invitadas.

**Artículo 14.—*Procedimiento de las sesiones***

De cada una de las sesiones de los órganos colegiados se levantará acta, en la que se deberá anotar el lugar, el día y la hora en que comiencen las sesiones, los nombres y apellidos de quienes asistan, así como los asuntos sometidos a deliberación y los acuerdos adoptados, así como el sentido de la votación.

Las actas que serán firmadas por la Presidencia y la Secretaría del Consejo Rector y serán sometidas a aprobación por el Consejo Rector.

Sólo se podrán tratar asuntos fuera del orden del día en las sesiones ordinarias. A tal fin, deberán ser declarados previamente de urgencia con el voto favorable de la mayoría absoluta del número de miembros del Consejo Rector.

Los acuerdos de los órganos colegiados se adoptarán como norma general, por mayoría simple de votos de los miembros presentes a la sesión, entendiéndose como tal la que se produce cuando los votos a favor superan los votos en contra. En caso de empate decidirá el voto de calidad de la Presidencia.

Los certificados de los acuerdos serán expedidos por la Secretaría del Consejo Rector.

cve: BAO-BOB-2011a068

**15. artikulua.—*Araubide gehigarria***

Kide anitzeko organoen bileretako prozedurari eta funtzionamenduari buruz estatutu hauetan ezarrita ez dagoenari begira, ezarri beharreko tokiko araubideko arauak finkatzen duena bete beharko da.

IV. KAPITULUA

**ZUZENDARITZAKO ORGANOA**

**16. artikulua.—*Zuzendaritzako organoaren profila***

Erakunde autonomiadunaren zuzendaria Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren zuzendaritzako organo gorena izango da. Hain zuzen ere, karrerako funtzionario batek, administrazio publikoetako lankontratudun langile batek, edo sektore pribatuko profesional batek beteko du postu hori. Azken kasu horretan, lanbidean bost urte baino gehiago eman dituela egiaztatu beharko du, eta, nolanahi ere, goimailako titulazioa eduki beharko du.

Arrigorriagako Udaleko edo tokiko erakunde autonomiaduneko langileei agindu ahal izango zaie zuzendaritza-lana, betiere, lehen adierazitako baldintzak betetzen badituzte. Hori gorabehera, erakunde autonomiadunaren lanpostuen zerrendari jarraiki bete ahal izango da lanpostua.

**17. artikulua.—*Zuzendaritzako organoaren eginkizunak***

Hona hemen Udal Euskaltegiaren zuzendaritzako organoak izango dituen oinarrizko eginkizunak:

a) Koordinazioko lanak egingo ditu Arrigorriagako Udalarekin.
